

KONGRESUA / CONGRESO

Haur eta Gazte Literatura: berrirakurketak eta zeharkako elkarrizketak  
Literatura Infantil y Juvenil: relecturas y conversaciones transversales

**Datak / Fechas**

2020ko azaroak 23 eta 24  
23 y 24 de noviembre de 2020

**Lekua / Lugar**

Bilboko Hezkuntza Fakultatea (Leioako Campus)  
Sarriena auzoa z.g.  
Facultad de Educación de Bilbao (Campus de Leioa)  
B° Sarriena s/n

**Antolakuntza eta arduradun zientifikoak /  
Responsables científicos y organizadores**

Maite Aperribay  
M. Carmen Encinas  
Iratxe Esparza  
Miren Ibarluzea

(En castellano más adelante)

Haur eta Gazte Literatura arian-arian sendotu da azken hamarkadetan, eta literatura-genero horren zati handi bat jatorrizko lanek osatzen badute ere, beren lekua dute aurretik idatzitako testuen 'berrirakurketa' gisa sortutako sormen-lanek, izan Literatura Unibertsaleko klasikoenak, izan ahozko tradizioko testuenak... Errealitate berrietara egokitzeko ahaleginean egindako lanen bidez, elkarrizketak sortzen dira testuinguru berrietatik idatzitako testuen eta aurreko testuen artean. Era berean, literatur ikasketek eta literatur kritikak literaturaren erabilera kontzienteagoetarako bidea eman dute, eta erabilera horiek testuak 'berrirakurtzeko' tresna dira. Hala, Haur eta Gazte Literatura ez da soilik literatura bere horretan, literatur gogoeta ere bada.

Biltzar honetan Haur eta Gazte Literaturako egokitzapenen, berridazketen zein berrirakurketen inguruan hausnartu nahi genuke. Bestela esanik, ikuspegi askotarikoetatik, kode ezberdinetatik zein foku edo helburu anitzetatik aurreko testuak berriz lantzen dituzten literatur testuen inguruan aritu nahi genuke. Halaber, proposatzen dugu testuak berrirakurtzea literatur zein kritika ikuspegi berrietatik. Hortaz, askotariko gaiak jorratuko ditugu, besteak beste, genero- eta egitura-aldaketak, jatorrizkoarekin elkarrizketan ari diren bertsoak, baliabideen translazioa formatuen arteko aldaketan, funtzio, esanahi, zentzu zein literatur motibo berriak esleitzea edo aldaketak eta ezabatzeak egitea. Horrez gainera, literatur testuei ikuspegi estetiko eta ideologikoetatik begiratuta, ahaleginduko gara literatur teoriaren transbertsalitateari arreta jartzen, izan

ere, lagundu egiten du konbentzio sozialak kuestionatzen eta birplanteatzen, eta lanen eta berrirakurketen berrikuste kulturala egiten.

\*\*\*

Komunikazio-proposamenak egiteko, honako hauek dira bidali beharreko datuak: egile guztien izen-abizenak, afiliazioa, posta elektronikoa, 15-20 lerroko komunikazioaren laburpena eta 10 lerroko informazio biografikoa.

Proposamenak irailaren 7a baino lehen bidali behar dira helbide elektroniko honetara: [lijBilbao@gmail.com](mailto:lijBilbao@gmail.com)

Irailaren 30a baino lehen jakinaraziko da talde antolatzailearen ebazpenaren berri.

Ahozkoak izango dira komunikazio guztiak, eta euskaraz edo gaztelaniaz aurkeztu daitezke. Aurkezpenetarako 20 minutuko tartea izango dute egileek, eta ondoren 10 minutu egongo dira eztabaidarako.

\*\*\*

Egun bizi dugun egoera dela eta, biltzarra modu semipresentzian egingo da: aukera baldin badago, biltzarra modu presentzian egingo da; baina, modu telematikoa parte-hartzeko aukera eskainiko zaie bertaratu ezin duten parte-hartzaileei edo hala eskatzen dutenei. Egoerak hala behartuko balu, komunikazio guztiak online egingo lirarteke.

Parte hartzaile bakoitzeko ordaindu beharreko tasak (biltzarrean izen-ematea eginda duten parte-hartzaileek baino ez dute agiria jasoko):

- Parte-hartzaileak: 60 €
- UPV/EHUko parte-hartzaileak: 40 €
- Bertaratze-agiria behar duten entzuleak: 10 €

Izen-ematea egiteko, behean zehaztu bezala egin behar da ordainketa, eta **ordainagiria bidali** helbide honetara: [lijBilbao@gmail.com](mailto:lijBilbao@gmail.com)

- UPV/EHU bestelako proiektu zein taldetan ari diren kideek, organikaren bidez egin dezakete ordainketa: 205120ZZAX.
- Gainerako parte-hartzaileek banku bidezko transferentzia bat egin beharko dute, datu hauek erabilita:

**Kontu-korrontearen zenbakia:** IBAN ES14 2095 092 94-1061569702

**Kontzeptua:** LIJ Bilbao + Parte hartzailearen izena eta abizenak.

\*\*\*

La Literatura Infantil y Juvenil se ha consolidado progresivamente a lo largo de las últimas décadas y, aunque una parte de esa literatura está formada por obras originales, siguen teniendo una gran presencia en ella las creaciones que suponen una ‘relectura’ de textos anteriores, ya sean clásicos de la literatura universal, cuentos populares... Se trata de obras que dialogan con las anteriores desde nuevos contextos, de obras que tratan de ajustarse a nuevas realidades. Así mismo, la evolución de los estudios literarios y de la crítica literaria ha dado lugar a usos más conscientes de la propia literatura, que se convierte en instrumento a través del cual se ‘releen’ textos. De esta manera la Literatura Infantil y Juvenil no sólo es literatura, sino que en sí misma es también reflexión literaria.

En este congreso proponemos llevar a cabo una reflexión sobre adaptaciones, reescrituras o relecturas dentro de la LIJ, una reflexión en definitiva sobre textos literarios que reelaboran otros anteriores desde diferentes perspectivas, a través de

distintos códigos y con variados enfoques o finalidades. Igualmente, proponemos abordar la relectura de obras desde nuevas perspectivas críticas y literarias. Trataremos, por lo tanto, temas diversos, como pueden ser los cambios de género y estructura, las versiones que dialogan con el original, traslaciones de recursos entre formatos, atribuciones de nuevas funciones, significados, sentidos o motivos literarios, así como sus modificaciones o supresiones. Además, considerando la literatura desde puntos de vista estéticos e ideológicos, trataremos de focalizar la atención en la transversalidad de la teoría literaria, que permite cuestionar y replantear las convenciones sociales estableciendo una revisión cultural de las obras y sus lecturas.

\*\*\*

Las propuestas de comunicación deben incluir la siguiente información de todos los autores: nombre y apellidos, afiliación, correo electrónico, título y resumen de 15-20 líneas, información biográfica (10 líneas).

Las propuestas se han de enviar antes del 7 de septiembre a la siguiente dirección: **[lijBilbao@gmail.com](mailto:lijBilbao@gmail.com)**

Se notificará la decisión del comité organizador antes del 30 de septiembre.

Se aceptarán comunicaciones en castellano y euskera. Todas ellas serán orales. Cada ponente tendrá 20 minutos para su exposición, seguidos de 10 minutos de debate.

\*\*\*

La modalidad del congreso será semipresencial. Dada la situación actual, siempre que las circunstancias lo permitan se intentará que el congreso sea presencial, si bien se ofrecerá la posibilidad de participar por vía telemática a aquellas personas que no puedan trasladarse o que así lo soliciten. En caso de que la situación así lo requiriese, el conjunto de las participaciones se realizaría online.

Tasas de inscripción por participante (sólo recibirán el correspondiente certificado las personas inscritas formalmente en el congreso):

- Participantes: 60 €
- Participantes de la UPV/EHU: 40 €
- Asistentes con certificado de asistencia: 10 €

Para formalizar la inscripción se debe hacer el pago a través de las siguientes vías y **enviar un justificante del pago** realizado a la dirección **[lijBilbao@gmail.com](mailto:lijBilbao@gmail.com)**

Los miembros de la UPV/EHU participantes en proyectos o grupos financiados podrán ejecutar el pago a través de la orgánica 205120ZZAX.

El resto de los participantes podrán formalizar el pago a través de una transferencia bancaria en el siguiente número de cuenta:

**Número de cuenta:** IBAN ES14 2095 092 94-1061569702

**Concepto:** LIJ Bilbao + Nombre y apellido del participante.